

- 42° 47 '48'' N - 2° 52' 33'' W **MARTXAUNDI** -  
Oharrak oinez egiteko partitura batentzat<sup>1</sup>

Abiapuntua: Bulegoa z/b: Solokoetxe 8, behea, 48006 Bilbo

*Ibiltari moderatoa* martxa abiatu eta martxa abian.  
Atsedanak isiltasunen modura zenbatzen dira.

[Telefonoak erabiliak ez izateko itzaliko dira (beharrezkoa bada bakarrik)]

*Ibiltari begiluze* taldea desegin gabe

Mapa katastralak irakurriz deriba 42° 47 '48'' N - 2° 52' 33''-rantz  
Gune urbanoak saihestuko ditugu. Posible badugu, inguratuz.  
[Ingurumaria inguratu. Estalperik ez]

Komunikazio bideak,  
autopista edota trenbideak...

*Allegro vivace* zeharkatuko ditugu

Eraikinaren batekin

30 minutu baino gehiago dituzten geldialdiak adierazi behar dira  
(eskuak akorduan,  
bihotzetik gertu edo bizkarraldetik)

*Pianissimo discreto* eraikitzen da gau bakarreko kanpamentua.

Eta bertan istorioen txanda.  
(Sua eta ahotsa)

Gosari batez ezabatzen da kanpamentua.  
Oinekin bidaia pertsonalen mapa trazatzen da.

[Urteko egunik luzeenak lasaitzen. Deiadarka deitzen]

Helmuga: Azala: 42° 47 '48'' N - 2° 52' 33'' W

Mapak atlasean eratzten dira:  
grabatua, kontatua, argazkian,  
marraztua

edo musika idatzia izan.

Hurrengo egunean: Atlas  
baterako erredakzio komitearen  
bilera.

---

<sup>1</sup> Baldintzek ekintza abortatzen badute, erredakzio komitea Azalara joango da bertan bilera egiteko Atlas irudikatu bati buruz (hori bakarrik)